



bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

ERABAKI PROPOSAMENA

21. puntua

Eusko Jaurlaritzaren Iruzuraren aurkako Neurrien Planari, printzipio etikoei eta adierazpen instituzionalari atxikitzea, NEXT GENERATION EU funtsen esparruan egin beharreko jarduketetarako. Funts horiek garraioaren datuak sortzeko hitzarmenaren bidez izapidetuko dira.

2020ko uztailaren 21ean, Europar Batasuneko estatuburuek eta gobernuburuek finantza-laguntza morde bat adostu zuten COVID-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomiko eta sozial larria arintzeko eta Europako ekonomiak eraldatzeko, berdeago, digitalago eta erresilienteago bihurtzeko asmoz. Helburu horrekin, berreskuratzeko **NEXT GENERATION EU** aldi baterako programa diseinatu zen.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Erregelamenduak, 22. artikuluan ezarri du Europar Batasunaren finantza-interesak babestu behar direla, eta iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurri egokiak hartu behar direla.

Beraz, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean ezarritako ekimenek kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitu behar dituzte.

PROPUESTA DE ACUERDO

Punto 21º

Adhesión al Plan de Medidas Antifraude, principios éticos y declaración institucional del Gobierno Vasco, para las actuaciones a realizar en el marco de los fondos NEXT GENERATION EU que se tramitarán mediante el correspondiente convenio para la generación de datos del transporte.

El 21 de julio de 2020, los Jefes de Estado y de Gobierno de la Unión Europea acordaron un paquete de ayuda financiera para paliar la grave crisis económica y social ocasionada por la pandemia del COVID-19 y transformar las economías europeas haciéndolas más verdes, digitales y resilientes. Con este objetivo, se diseñó el programa de recuperación de carácter temporal **NEXT GENERATION EU**.

El Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo de 12 de febrero de 2021, por el que se establece el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia, dispone en su artículo 22 que se deben proteger los intereses financieros de la Unión Europea incluyendo tomar las medidas oportunas para prevenir, detectar y corregir el fraude, la corrupción y los conflictos de intereses.

Por ello, las iniciativas planteadas en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, las Administraciones Públicas deben adaptar los procedimientos de gestión y el modelo de control.



Arintzeko neurri batzuk abenduaren 30eko 36/2020 Errege Dekretuaren bidez ezarri zituzten. Dekretu horren bidez, presazko neurriak onartzen dira Administrazio Publikoa eguneratzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko.

Gainera, Europako Batzordeko zerbitzuei ordaintzeko eskaerak modu eraginkorrean izapidetzeko Kudeaketa Sistema garatzeko asmoz, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua onartu zen, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistemaren barruan.

Agindu horren 6. artikuluan eskatzen da iruzurraren aurkako neurrien plan bat egitea Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsak kudeatzen dituen erakunde bakoitzan, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzen direla ziurtatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2022ko martxoaren 29an, neurri-plan bat onartu zuen iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzak eta ingurumen-kalte ez-esanguratsuko baldintzak betetzeko, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren baliabideekin finantzatutako ekimenetarako, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean gauzatzean eskatzen dena, eta Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa bere gain hartzen duen Adierazpen Instituzionala betetzeko ere.

Beharrezkoa da BGPK plan horri atxikitzea,

Algunas medidas de agilización se establecieron mediante el Real Decreto-ly 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

Además, en el desarrollo de un Sistema de Gestión que facilite la tramitación eficaz de las solicitudes de desembolso a los Servicios de la Comisión Europea, se aprobó la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

En el artículo 6 de esa Orden se exige la redacción de un plan de medidas antifraude para cada organismo gestor de fondos del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR) con el objetivo de asegurar la prevención, detección y corrección del fraude, la corrupción y los conflictos de intereses.

El Consejo de Gobierno Vasco del 29 de marzo de 2022 ha aprobado un Plan de medidas para cubrir los requisitos antifraude, conflicto de interés, doble financiación y ayudas de estado y daño no significativo al medio ambiente para las iniciativas financiadas con recursos del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia, exigido en la ejecución del Plan, así como la Declaración Institucional por la que se asume el compromiso del Gobierno Vasco de lucha contra el fraude.

Resulta necesaria la adhesión por CTB a ese



NEXT GENERATION EU funtsekin finantzatu diren jarduerak gauzatzeko, garraioaren datuak sortzeko eta bidezko lanak lizitzatzeko eta egin beharko den hitzarmena sinatu ahal izateko.

Aurreko guztia kontuan izanda, Kontseilu Nagusiak, aho batez (edo gehiengoz), honakoa erabaki du:

LEHENENGOA.- Onartzea iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzen eta estatu- eta ingurumenean kalte ez-esanguratsu- laguntzen arauak betetzeko Neurrien Planera BGP atxikitzea. Plan hori Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu zuen 2022ko martxoaren 29an.

BIGARRENA.- Onartzea Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onartutako iruzurraren aurkako konpromisoaren adierazpen instituzionalari BGP atxikitzea, Europako Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatutako ekimenak gauzatzearen esparruan.

HIRUGARRENA.- Onartzea BGP Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onartutako Etika eta Jokabide Printzipioei atxikitzea, iruzurgileak uxatzeko eta iruzurrari aurre egiteko agintarien eta inplikaturako langileen ahalik eta konpromisorik handiena lortzeko, osotasuna, objektibotasuna, kontuak ematea eta zintzotasuna sustatzeko, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoan.

plan para llevar a cabo las actuaciones que se financiarán con los fondos NEXT GENERATION EU a efectos de posibilitar la firma del convenio para la generación de datos del transporte y poder licitar los trabajos oportunos.

En atención a todo lo anterior el Consejo General, por unanimidad (o por mayoría), adopta el siguiente acuerdo:

PRIMERO.- Aprobar la adhesión de CTB al Plan de Medidas para cubrir los requisitos antifraude, conflicto de interés, doble financiación y ayudas de estado y daño no significativo al medio ambiente aprobado por el Consejo de Gobierno Vasco del 29 de marzo de 2022.

SEGUNDO.- Aprobar la adhesión de CTB a la declaración institucional de compromiso de lucha contra el fraude aprobada por el Consejo de Gobierno Vasco del 29 de marzo de 2022 en el marco de la ejecución de iniciativas financiadas con fondos del Mecanismo Europeo de Recuperación y Resiliencia.

TERCERO.- Aprobar la adhesión de CTB a los Principios Éticos y de Conducta aprobados por el Consejo de Gobierno Vasco el 29 de marzo de 2022, cuya finalidad es la de disuadir a los defraudadores y conseguir el máximo compromiso posible de las autoridades y el personal implicado para combatir el fraude, así como fomentar la integridad, la objetividad, la rendición de cuentas y la honradez en relación con el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia.



LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

Bilbo, 2022ko apirilaren 26a

CUARTO.- Dar traslado de este acuerdo al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, a la Oficina de Control Económico del Gobierno Vasco y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Bilbao, 26 de abril de 2022.

Zunzendari Nagusia
El Director Gerente

Izp./Fdo.: Gorka Ugalde Martínez